

## XEDAPEN OROKORRAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

# 1515

*42/2014 DEKRETUA, martxoaren 25ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua aldatzekoa.*

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretua eman zen, zertarako eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien funtzioak eta jardun-arloak finkatzen dituen abenduaren 15eko Lehendakariaren 20/2012 Dekretua garatzeko.

190/2013 Dekretuaren 9.c) artikulua arabera, Teknologia eta Estrategia Zuzendaritzari dagokio, besteak beste, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetzaren menpe, honako eskumen hau baliatzea: Klusterren politika (klusterrak sortzen direnetik) eta klusterren funtzionamendu-hitzarmenak eta horiekiko harremanak garatzea, eta klusterren plan estrategikoak eta jardunak sailaren politiken eta arloekin koordinatzea.

Dekretu bereko 14.a) artikuluan jasotakoaren arabera, halaber, Nazioartekotze Zuzendaritzari dagokio, zuzenean eta hierarkian Industria Sailburuordetzaren menpe, honako funtzio hau betetzea besteak beste: enpresen arteko lankidetzak bultzatzea partzuergoen edo lankidetzako beste modu batzuen bidez.

Zuzendaritza bion helburua enpresa lehiakortasuna den arren, garapenaren bidez eta I+G+B programak martxan jarri edo enpresak nazioartekotzen laguntzeko programen bitartez, 190/2013 Dekretua onartu zenetik pasatako denbora eta eskarmentua kontuan izaki, eraginkortasun eta eragingarritasun handia lortze aldera, zuzendaritza eta sailburuordetza bien eskumenak aldatu behar dira.

Nazioartekotze Zuzendaritzaren enpresen arteko lankidetzak programek partzuergoen edo bestelako lankidetzak formen bidez kluster politikarekiko bistako sinergiak aurkezten dituztenez, komenigarria da funtzio biak zuzendaritza berera batzea, programa biak eraginkortasun eta eragingarritasun handiagoz kudeatu ahal izateko.

Hortaz, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak proposatuta, Lehendakariak onartuta eta Gobernu Kontseiluak onetsita 2014ko martxoaren 25eko bileran, hauxe

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen irailaren 9ko 190/2013 Dekretuaren 9. artikuluko c) letra desagerrarazten da.

Bigarren artikulua.– i) letra gehitzea Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen irailaren 9ko 190/2013 Dekretuaren 14. artikuluari. Letra horren testua, hau da:

«i) Klusterren politika (klusterrak sortzen direnetik) eta klusterren funtzionamendu hitzarmenak eta horiekiko harremanak garatzea, eta klusterren plan estrategikoak eta jardunak sailaren politiken eta arloekin koordinatzea».

2014ko apirilaren 1a, asteartea

## AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Baimena ematen zaio Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari dekretua garatu eta betearazteko beharrezko xedapenak emateko.

## AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko martxoaren 25ean.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.